

KANALAK

Atal honetan gure produktua nola iritsiaraziko diogun gure bezeroari argitu dugu. Horretarako, zein komunikabidez baliatuko garen azalduko dugu. Horrez gain, bezeroek ondasuna non eta nola eskura dezaketen deskribatu eta banaketa non eta nola egin xehatu dugu.

Garrantzitsua iruditzen zaigu adieraztea nolako harremana izango dugun gure bezeroarekin. Bezeroa eroso sentitzea da gure lehentasuna, eta horregatik, sare sozial eta telefono bidez komunikatuko gara. Gure web orrian izango dira ikusgai: Instagram eta Facebook-eko kontuak, posta elektronikoa eta telefono zenbakia. Horrez gain, *Oleta iturgintza* lokalera joateko aukera ere izango dute, aurrez aurreko kontaktua bilatzeko asmoa badute.

Bi salmenta baliabide izango dituzte gure bezeroek produktua eskuratzeko. Alde batetik, *Oleta Iturgintza* dendan eta bestetik online bidez. *Oleta Iturgintza* saltzeak, herriko merkataritza indartzen laguntzen du, oso garrantzitsua dena guretzat. Bestalde, online bidez ondasuna erosteko aukera dago, batzuentzat erosoagoa izango delako.



Gaur egun sare sozialak oso nabarmendurik daude, eta geroz eta enpresa gehiagok haien proposamena bertan saltzen dute. Horregatik, publizitatea ere sare sozialen bidez egingo dugu. Dohainik izateak ez dizkigu gastuak suposatzen, eta modu honetan publizitatea bezero askorengana iritsiko da.